100 zenbakiaren lagunak

10-ren lagunak ezagutzen ditugu, beraz erraz ikasiko ditugu 100en lagunak.

Hamar zenbakiaren lagunak: **1+9, 2+8, 3+7, 4+6 eta 5+5**

Gure bizitzan askotan egin behar izaten ditugu 100 batzeko kalkulu azkarrak, batez ere diruarekin. Adibidez 4,43€ gastatu badut erosketetan, zenbat diru itzuli beharko didate 5€ko bilete batekin ordaindu badut?

Hemen gastatu ditugun zentimoak hartuko ditugu, kasu honetan **43**

1) Unitateekin hasiko gara. Zenbat falta da 10 izateko?: **3 + 7=10**

2) Orain hamarrekoak. 3+7 egin dugunez hamarreko bat gehiago dugu. Beraz ez dugu 10 lortu behar, baizik eta bat gutxiago: 9 **4+ 5= 9**

43

9 lortu behar dugu — 10 lortu behar dugu

5 **7** **= 57** → **43+ 57= 100**

Orain badakigu zenbat batu behar duten hamarrekoek (9) eta unitateek (10)

Nahi baduzue alderantziz ere egin daiteke:
Lehendabizi hartu **hamarrekoak**: **zenbat falta da 9ra iristeko?**
Gero **unitateak**: **zenbat falta da 10 izateko?**

Begira beste bi adibide hauek:

72

9 lortu behar dugu — 10 lortu behar dugu

2 **8** **= 28**

72+ 28= 100

34

9 lortu behar dugu — 10 lortu behar dugu

6 **6** **= 66**

34+ 66= 100



100-EN LAGUNAK

Kalkulatu buruz azalpenean ikusi duzun teknika edo zurea erabiliz:

28	+	☐	= 100	14	+	☐	= 100
33	+	☐	= 100	29	+	☐	= 100
45	+	☐	= 100	55	+	☐	= 100
89	+	☐	= 100	83	+	☐	= 100
76	+	☐	= 100	41	+	☐	= 100
92	+	☐	= 100	32	+	☐	= 100
64	+	☐	= 100	96	+	☐	= 100
57	+	☐	= 100	74	+	☐	= 100